BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA, DONOSTIA ZINEMALDIRAKO BABESEN KUDEAKETA ZERBITZUAK KONTRATATZEKOA

Posta kutxatila - Aptdo. de correos 397
20080 Donostia / San Sebastián
T (+34) 943 481 212 E ssiff@sansebastianfestival.com
www.sansebastianfestival.com

1.- KONTRATUAREN XEDEA

Kontratuaren xedea Donostia Zinemaldiaren babesen kudeaketa-zerbitzuak ematea da, kontratuak iraun bitartean eta balizko luzapenetan. Xedeak ondokoa biltzen du:

a) Marketin aholkularitza integrala, estrategia orokorreko aholkuak emateko eta ekintza zehatzak diseinatzeko, lehengo babesleei eutsi eta berriak lortu ahal izateko.
b) Babesleak eta laguntzaileak bilatzea, Zinemaldiari diru-kontraprestazioak edota ordezko kontuen estaldura emango diotenak.
c) Babesle eta laguntzaile guztien parte-hartzeari erantzutea edo optimizatzea, *ad hoc* eginiko Babes Ustiatze ekintzen bidez.

Zinemaldiak kontrakorik espresuki adierazi ezean, enpresa esleipendunaren kudeaketatik kanpo geratuko dira zikloen edota sailen antolatzaile-kideak, zinemagintzaren sektorearekin zuzenean lotutako enpresa publiko edo pribatuak, eta sozietatearen helburu gisa kultura babestea, hedatzea, kudeatzea edota sustatzea duten erakunde publiko zein pribatuak.

Era berean, ez da esklusibotasun-kontratu bat.

2.- LAN-TALDEA

2. gutun-azalean kontratua gauzatzeko zein langile atxikiko diren deskribatuko da, langile horiek kontratuaren xedearen lan berdinetan edo antzekoetan duten antolaketa, kualifikazioa eta esperientzia zehaztuz. Lan-taldeak, gutxienez, honako profesional hauek izan beharko ditu:

a) Kontratuaren zuzendaritza-taldea, lehentasunez kontratuaz arduratua. Zinemaldirako balizko babesle handiekiko harreman estrategikoak ezarriko ditu, eta taldea antolatu eta zuzenduko du, helburuak lortzeko.
b) Kontratuaren exekutiboa. Zinemaldiak zehazturiko helburuak gauzatzeko eta lortzeko ardura duen pertsona izango da. Horretarako, sormen lanak, marketin ekoizpena eta gauzatzea koordinatuko ditu, eta eguneroko jarraipenaz arduratuko da.

Lan-taldeak euskararen edo gaztelaniaren maila altua izan beharko du, eta profesionaletako batek, gutxienez, ingeleseko maila altua izan beharko du, eta egiaztatu beharko da.

Zinemaldiak edozein unetan agindu ahal izango du, bere ustez egin beharreko lanerako nahiko gaituak ez dauden edo Zinemaldiaren irudi eta emaitzentzat jarrera kaltegarria erakusten duten langileak kontratutik bereiztea.

3.- TXOSTENAK EGITEA

Esleipendunak txostenak egin beharko ditu hilero, egindako kontaktuei eta horien egoerari eta bilakaerari buruz.

4.- BULEGOA

Lizitatzaileek Espainian kokatutako filial edo ordezkaritza bat atxiki beharko dute kontratua gauzatzeko.

5.- DESPLAZAMENDUA

Zinemaldiari laguntza pertsonalizatua ematen eta babesleen ekintzak ikuskatzen laguntza emateko, lantaldeko kideetako bat Donostian egotea eskatuko da, Zinemaldia inauguratu aurreko egunetik Zinemaldia amaitu arte. Aipatutako pertsona lekualdatu behar izanez gero, Zinemaldiak ostatu-gastuak bakarrik hartuko ditu bere gain, eta esleipendunak ordainduko du pertsona horren egonaldiak eta joan-etorriek eragindako beste edozein gastu, ezarritako denbora-tartean.